

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Akta zenbakia: 10/2018
Bilera data: 2018-09-07
Bilera mota: Ez Ohiko osoko bilkura
Deialdia: Lehenengoa
Ordua: 13:30-13:55
Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratutakoak:

Alkatea: Mikel Pagola Tolosa

Zinegotziak:

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Manuel Mayoz Ostolaza
Mikel Izagirre Rekondo
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

Ez dira bertaratu eta adierazi dute:

M^a Pilar Sarasola Bulman
Ixiar Martiarena Lizarazu
Itziar Artola Bedia

Idazkaria:

Mateo Habibi Astigarraga López

Urnietan, 2018ko irailaren 7an goian adierazitako zinegotzi jaun-andreak bildu dira, 13:30etan, Mikel Pagola Tolosa alkatea lehendakari dutela, ez-ohiko bilera egiteko.

Gehiengo absolutuaren quoruma gaintu delarik eta lehendakariak bilkura hasi duelarik, eguneko gai zerrendan agertzen diren puntuak aztertzeari ekin diote.

Aztergaiak:

- 1- Kirol zerbitzuaren kudeaketa era aldatzea.
- 2.- LLZren aldaketa.
- 3.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.
- 4.- Bake Epaile titular eta ordezkariaren hautapena.
- 5.- Alkatearen funtzioen eskuordetza xedatzen duen 2018-562 ebazpenaren berri ematea.

Acta nº: 10/2018
Fecha: 07-09-2018
Tipo de reunión: Pleno extraordinario
Convocatoria: Primera
Hora: 13:30-13:55
Lugar: Salón de plenos del Ayuntamiento

Reunidos:

Alcalde: Mikel Pagola Tolosa

Concejales:

Maribel Vaquero Montero
Jorge Segurado Iriondo
David Rosco Jorge
Juan Luis Goikoetxea Benzala
Manuel Mayoz Ostolaza
Mikel Izagirre Rekondo
Xabier Yurramendi Garmendia
Consuelo Frutos Gonzalez
Ivan Haro Marcos

No asisten y excusan su ausencia:

M^a Pilar Sarasola Bulman
Ixiar Martiarena Lizarazu
Itziar Artola Bedia

Secretario:

Mateo Habibi Astigarraga López

En la villa de Urnieta a 7 de septiembre de 2018, siendo las 13:30 horas se reúnen los concejales arriba relacionados, bajo la Presidencia del Sr. Alcalde Mikel Pagola Tolosa, al objeto de celebrar sesión extraordinaria.

Superado el quórum de la mayoría absoluta y abierta la sesión por la Presidencia, se procede al desarrollo de los puntos del orden del día.

Orden del día:

- 1.- Modificación de la forma de gestión del servicio municipal de deportes.
- 2.- Modificación de la RPT.
- 3.- Modificación de crédito: créditos adicionales.
- 4.- Selección de Juez de Paz titular y sustituto.
- 5.- Dación de cuenta del decreto 2018-562 de delegación de competencias del alcalde.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

1- Kirol zerbitzuaren kudeaketa era aldatzea.

Mikel Izagirre EH-Bildu Udal taldeko zinegotziak hartzen du hitza adierazteko beraien aburuz aukera hauek baliatu behar direla sozietate publikoekin dagoen egoera "irregularra" ahal den adinean zuzentzeko.

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza esateko Mikel Izagirrek esandakoa zehaztu egin nahiko lukeela, hau da, Sozietate Publikoekin dagoen egoera ez dela irregularra, "desberdina" baizik, eta egoera hau zuzentzeko, kirol zerbitzuarekin egin den bezala, udaleko beste zerbitzu batzuekin ere antzeko pausoak ematearekin eta lanketa egitearekin ados daudela.

1. Gertatzeko aurrekariak

Urnietako Udalak, Urnietako herritarrei eskaintzen zaien kirol zerbitzua hobetzeko asmoz, 2018ko ekainaren 15eko alkatetza-probidentziaz eman dio aipatutako zerbitzu kudeatzeko era aldatzeko espedienteari hasiera Udalak zuzenean kudeatu dezan.

Gaur egun, zerbitzua, zuzenean, % 100ean Udal jabetzakoa den Kulturnieta S.A. sozietate anonimoaren bitartez ematen da bere estatututetako 2. artikuluekin eta Urnietako Udal kirol instalazioetako ekipamendua, pertsonala eta kudeaketa Kulturnieta S.A.ri lagatzea onartu zen 1993ko abenduaren 28an Urnietako Udalean egindako ezohiko Udalbatzarrean hartutako erabakiarekin bat.

2018ko ekainaren 20ko dataz, idazkariak eta kontuhartzaileak Udaleko kirol zerbitzua kudeatzeko era aldatzeko txosten-proposamen justifikatzailea idatzi dute.

2018ko uztailaren 10eko 132 zkidun. Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean egindako argitalpenetik aurrera irekitako 30 egun naturaleko jendaurreko epean ez da alegaziorik aurkeztu.

1.- Modificación de la forma de gestión del servicio municipal de deportes.

Toma la palabra Mikel Izagirre concejal del grupo municipal EH Bildu, para decir que en su opinión hay que aprovechar estas oportunidades para corregir en la medida de lo posible la situación "irregular" que existe con las sociedades públicas.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para decir que quiere concretar lo dicho por Mikel Izagirre, es decir, que la situación que existe con las Sociedades Públicas no es irregular, sino "diferente", y para corregir esa situación, tal y como se ha hecho con el servicios de deportes, dice que están de acuerdo en dar pasos parecidos y trabajar en ese sentido con otros servicios del Ayuntamiento.

1. Antecedentes de hecho

El Ayuntamiento de Urnieta, con el objetivo de mejorar la prestación del servicio de deportes a los vecinos de Urnieta, ha dado mediante providencia de Alcaldía de 15 de junio de 2018 inicio al expediente de modificación de la forma de gestión de dicho servicio para que sea prestado de forma directa por el Ayuntamiento.

En la actualidad la prestación del servicio se realiza de forma directa a través de la sociedad anónima de titularidad 100 % municipal Kulturnieta, S.A., de acuerdo con el artículo 2 de sus Estatutos y del acuerdo adoptado por el Pleno del Ayuntamiento en sesión extraordinaria celebrada el 28 de diciembre de 1993 por el que se aprobó la cesión a Kulturnieta, S.A. del equipamiento, personal y gestión de las Instalaciones Deportivas Municipales de Urnieta.

Con fecha 20 de junio de 2018 se ha redactado por el Secretario y la Interventora Memoria/Informe justificativa de la modificación de la forma de gestión del servicio municipal de deportes del Ayuntamiento.

Durante el período de información pública de treinta días naturales contados a partir de la publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa (nº 132, de 10 de julio de 2018) no se presentaron alegaciones.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

2. Legeria aplikagarria

Legeria aplikagarria ondorengoek ezartzen dute:

- 7/1985 Legea, apirilaren 2koa, Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituenaren 22.2.f), 25, 26 eta 85etik 86rako artikuluek.
- 2/2016 Legea, apirilaren 7koa, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoaren 93tik 95erako artikuluek.
- 781/1986 Errege Dekretu Legea, apirilaren 18koa, Tokiko Araubidearen arloan indarrean dauden xedapenei buruzko testu bategina onartzen duenaren 95 eta 97 artikuluek.
- Tokiko Korporazioen Zerbitzuen Araudia onesten duen 1955eko ekainaren 17ko Dekretuaren 30etik 36rako eta 41etik 112rako artikuluek.

Toki-araubidearen oinarriak arautzen dituen legearen 22.2.f) eta 47.2.k) artikuluekin bat, Udaltzarrari dagokio zerbitzuaren kudeaketa era aldatzea onartzea, korporazioaren kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz.

Ikusita 2018ko irailaren 3an egindako Antolakuntza Batzorde Informatzailearen bileran emandako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 10.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 6.
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.
URNIETAKO EH BILDU: 2

Aurka: 0.

Abstentzioak: 0.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 10 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa.- Urnieta Udalaren kirol zerbitzua kudeatzeko era aldatzeko memoria justifikagarria onartzea.

2. Legislación aplicable

La Legislación aplicable viene establecida por:

- Los artículos 22.2.f), 25, 26 y 85 a 86 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, de Bases del Régimen Local (LBRLR).
- Los artículos 93 a 95 de la Ley 2/2016, de 7 de abril, de Instituciones Locales de Euskadi (LILE).
- Los artículos 95 y 97 del Texto Refundido de las disposiciones legales Vigentes en materia de Régimen Local aprobado por Real Decreto Legislativo 781/1986, de 18 de abril (TRRL).
- Los artículos 30 a 36 y 41 a 112 del Reglamento de Servicios de las Corporaciones Locales aprobado por Decreto de 17 de junio de 1955 (RSCL).

De conformidad con los artículos 22.2.f) y 47.2.k) de la LRBRL, la aprobación de la modificación de la forma de gestión del servicio corresponde al Pleno, por mayoría absoluta del número legal de miembros de la Corporación.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 3 de septiembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 10.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 6.
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL
AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.
URNIETAKO EH BILDU: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: 0.

El Pleno por unanimidad de los 10 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la Memoria justificativa de la modificación de la forma de gestión del servicio municipal de deportes del Ayuntamiento.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Bigarrena.- Onartutako memoria justifikagarriaren arabera Urnieta Udalaren kirol zerbitzua kudeatzeko eraren aldaketa onartzea.

Hirugarrena.- Erabaki hau interesdunei jakinaraztea, bere aurka aurkeztu daitezkeen errekurtsoak adieraziz.

2.- LLZren aldaketa.

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza adierazteko puntu hau aurreko puntuarekin lotuta dagoela, kirol zerbitzuaren kudeaketa Kulturietak eraman ordez, Urnieta Udalak beregain hartuko duelako zerbitzu hori, horretarako Udaleko LLZn lanpostu bat sortu behar delarik.

Ikusirik 2018ko uztailaren 18an egindako Negoziazio Mahaiko akta.

Ikusirik 2018ko abuztuaren 29an Administrazio Orokorreko teknikariak egindako txostena, eta honi erantsitako langileen lanpostuen zerrenda aldatzeko proiektua.

Ikusirik 2018ko abuztuaren 29an Udaleko Idazkariak egindako txosten-proposamena.

Ikusita 2018ko irailaren 3an egindako Antolakuntza Batzorde Informatzailearen bileran emandako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 10.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 6.
URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA: 2.
URNIETAKO EH BILDU: 2

Aurka: 0.

Abstentzioak: 0.

Segundo.- Aprobar la modificación de la forma de gestión del servicio municipal de deportes del Ayuntamiento, de conformidad con el contenido de la Memoria justificativa aprobada.

Tercero.- Notificar el presente acuerdo a las personas que resulten interesadas, con indicación de los recursos pertinentes.

2.- Modificación de la RPT.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola y dice que este punto está relacionado con el punto anterior, ya que la gestión del servicio de deportes la llevará el Ayuntamiento de Urnieta en vez de Kulturietak, de forma que para ello hay que crear un puesto de trabajo en la RTP del Ayuntamiento.

Visto el acta de la Mesa de Negociación celebrada el 18 de julio de 2018.

Visto el informe de la Técnico de Administración General de fecha 29 de agosto de 2018 y el proyecto de modificación de la relación de puestos de trabajo anexa al mismo.

Visto el informe-propuesta emitido por el Secretario Municipal de fecha 29 de agosto de 2018.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 3 de septiembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 10.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 6.
GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL
AYUNTAMIENTO DE URNIETA: 2.
URNIETAKO EH BILDU: 2.

En contra: 0.

Abstenciones: 0.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 10 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehena.- Udaletxe honetako Lanpostuen Zerrenda onartzea, espedientean agertzen den testuarekin.

Bigarrena.- Aldaketa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean.

3.- Kreditu aldaketa: kreditu gehigarria.

Consuelo Frutos Urnietako Udal Talde Sozialistako bozeramaleak hartu du hitza eta adierazi du labor-labor berriz azaldu nahiko lukeela bere taldearen jarrera, irisgarritasunren gaiarekin loturan, udalerrri honentzako hain garrantzitsua den jarduketa honen inguruan.

Gehitu du argi azaldu nahi duela, bai aktetan, bai Udaleko web orrian eta komunikabideetan informazioa zuzen jaso dadin, eta berak emandako arrazoiez interpretazio okerrik egin ez dadin.

Legegintzaldiaren hasieran, zehazki, 2015ko urriaren 15ean, sozialistek beste gai batzuen artean proposatu zuten udalerriko eremu desberdinetan eskailera mekanikoak, arrampak edo igogailu inklinatuak jartzeko azterketa bat egitea, udalerrria irisgarriago egiteko. Udalerriko eremu desberdinez hitz egiten zutenean, zehazki eremu honetaz ari ziren, Osoko Bilkura honetan eztabaidagai den igogailua kokatuko den mendi magalaz, hain zuzen.

Prozesu hau lantzen ari den hiru urtetan, behin eta berriz proposatu dute hasierako igogailu bertikalaren ideia igogailu inklinatua izatera aldatzeko. Pentsatzen jarraitzen dute, igogailu bertikalaren dorreak eragiten duen efektu bisuala izugarria dela, oso itsusia, igogailu inklinatu batenarekin alderatuta. Seguru daude askoz ere hobeto geratuko litzatekeela eta hirigintza aldetik askoz ere atseginagoa izango dela ingurunearekin, bere inguruarekin eta bizilagunekin. Bizilagunei buruz, kasu honetan Eteneta Elkartearen gainean bizi diren bizilagunek ari da, izan ere, urte hauetan guztietan ez ziren konturatu edo ez zitzairen

El Pleno por unanimidad de los 10 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

ACUERDO:

Primero.- Aprobar la modificación de la Relación de Puestos de Trabajo de este Ayuntamiento, con el texto que figura en el expediente.

Segundo.- Publicar la modificación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

3.- Modificación de créditos: créditos adicionales.

Toma la palabra Consuelo Frutos portavoz del Grupo Municipal Socialista de Urnieta para manifestar que brevemente quisiera volver a explicar el posicionamiento que su grupo ha mantenido sobre esta actuación tan importante para este municipio relacionado con el tema de accesibilidad.

Añade que lo quiere explicar con claridad para que tanto en las actas como en la web municipal y los medios de comunicación se recoja la información con veracidad y no haya lugar a malinterpretaciones de su argumentación.

Al inicio de esta legislatura, concretamente el 15 de octubre de 2015, los socialistas registraron y propusieron entre otras cuestiones que se hiciera un estudio de colocación de escaleras mecánicas, rampas o en su caso ascensores inclinados en distintas zonas del municipio con la finalidad de hacer un municipio más accesible. Cuando hablaban de distintas zonas del municipio se referían a esta zona concretamente, la ladera donde va a ir ubicado el ascensor objeto de debate en este Pleno.

Durante los tres años que se lleva tratando este proceso han propuesto reiteradamente que se cambiara la idea inicial del modelo del ascensor vertical por un ascensor inclinado. Siguen pensando que el efecto visual de la torre del ascensor en vertical es bestial, horroroso comparado con un ascensor inclinado. Están seguros que quedaría muchísimo mejor y sería más amable urbanísticamente con el entorno, con sus alrededores y sus vecinos. En relación a los vecinos, en este caso se está refiriendo a los vecinos que viven encima de la Sociedad Eteneta, ya que durante

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

kontuan hartu, 20 metroko kristalezko dorre bat izango baitute bere etxebizitzaren aurrean, bisualki eragingo diena.

Talde Sozialistak behin eta berriz azpimarratu duen proposamen hori ez du Gobernu Taldeak kontuan izan, eta igogailu mota hori bideragarria ez dela komentitzen saiatzen zaizkien arren, pentsatzen jarraitzen dute gutxieneko interesa jarri balute, egin egingo zela.

Gobernu taldeak beti argudiatu du igogailu inklinatua gauzatzeko eta mantentzeko garestiagoa dela. Garestia dela esaten denean, ez da zehazten zenbat garestiagoa den: 25.000?, 50.000?, 100.000? Bikoitza? Ez da frogatu benetako txostenekin hori horrela zenik, baizik eta esan da hori garestiagoa zela. Gobernu taldeak erabiltzen duen beste argudioetako bat da, bere igogailu eredua defendatzeko, herritarren parte-hartze prozesuan herritarren boto gehienak erabaki zutela udalerriko jarduketa garrantzitsuenetako bat igogailu bat eraikitzea zela, udalerriko bi alde horien arteko desnibela kentzeko, eta argudio bezala horrek ere ez dituela komentitzen, beraiei ere ez zitzaielako modelo aukeratzeko utzi, parte-hartze prozesuan igogailu bertikala zegoen muntaia aurkeztu zelako eta egia dela herritarrek hori hautatu zutela, herriarentzako oso ondo dagoen inbertsioa delako.

Gehitu du asko izan direla berarengana gerturatu diren herritarrek esateko sozialistek beti proposatu izan duten igogailu modelo, inguru horretarako askoz ere egokiagoa zela.

Amaitzeko, Yurramendi 8an kaltetutako bizilagunei erreferentzia egin nahi dien. Alkatetza honen aldetik bizilagun horienganako tratuan sentsibilitate falta adierazi nahi du, beti berandu, eta alegazioei oraindik ere guztiz erantzun ez zaiela pentsatzen jarraitzen dutela. Gehitu du lehen momentutik helburua espropiazioa egitea baldin bazen, beraiekin askoz ere finagoa izatea bazegoela, beti egin daitekeelako gehiago, nahi izanez gero. Beraz, ondorioztatu du ez dutela partekatzen ez duten proiektu baten alde bozkatuko, ez bakarrik modeloगतिक, gauzak joan diren moduगतिक baino. Baiezatu du Urnietako Talde Sozialista Urnietan irisgarritasun arazoak

todos estos años no se habían dado cuenta o no se les había tenido en cuenta, porque van a tener una torre de cristal de 20 metros delante de sus viviendas que les va a afectar visualmente.

Esta propuesta que el Grupo Socialista a menudo ha reiterado no ha sido tenida en cuenta por el equipo de Gobierno, y que por mucho que intenten convencerles de que este modelo de ascensor no es viable, siguen pensando que si se hubiera puesto un mínimo de interés se hubiera realizado.

Que el equipo de gobierno siempre ha argumentado que el ascensor inclinado es más caro en su ejecución y en el mantenimiento. Cuando se habla de caro no se detalla de cuánto están hablando, ¿25.000? ¿50.000? ¿100.000? ¿El doble? No se ha demostrado con informes reales que eso fuera así, sino que simplemente se ha dicho que era más caro. Otro de los argumentos a los que recurre el equipo de gobierno para defender su modelo de ascensor es que en el proceso de participación ciudadana, la mayoría de los votos de los ciudadanos decidieron que una de las actuaciones más importantes del municipio era la construcción de un ascensor que salvara el desnivel entre estas dos partes del municipio, y que como argumento tampoco les convence ya que a ellos tampoco se les dio a elegir el modelo, porque se hizo una participación donde había un montaje de un ascensor en vertical y que es verdad que los ciudadanos optaron por eso porque era una inversión que está muy bien para el municipio.

Añade que han sido numerosos los ciudadanos que se les han acercado para decirles que el modelo de ascensor que los socialistas siempre han propuesto iba mucho más acorde con la zona.

Para finalizar, quiere referirse a los vecinos afectados de Yurramendi 8. Señala una falta de sensibilidad en el trato que se ha dado por parte de esta Alcaldía a estos vecinos, siempre tarde, y que siguen considerando que no se les ha contestado totalmente a las alegaciones. Añade que si desde el primer momento la finalidad era la expropiación, se podría haber sido mucho más exquisito con ellos, porque siempre se puede hacer más, si se quiere. Por lo tanto, concluye que no van a votar a favor de un proyecto que no comparten, no sólo por el modelo, sino por la forma en la que se ha desarrollado. Afirma que el Grupo Socialista de Urnieta es partidario de solucionar los problemas de accesibilidad en Urnieta,

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

konpontzearen aldekoa dela, baina seguru daude gauzak askoz ere hobeto egin zitezkeela.

Mikel Izagirre EH-Bildu Udal taldeko zinegotziak hartzen du hitza adierazteko puntu honetan badaudela gauzak inork ukatu ez lituzkeenak, argi baitago Alderdi Sozialistak proposatzen duen igogailu ereduari, bai estetikoki eta alderdi guztietatik, guztiek emango lioketela baiezkoa, baina gero kostua ikusten denean, beste kontu bat dela.

Berak ikusi dituen mota hauetako igogailuak, milaka pertsona mugitzen diren tokietan daudela. Ikusiko dela Donostikoa jartzen denean zer erabilera duen, baino aurreikuspena 25.000 pertsonak erabiltzea dela, eta ez Urnietan erabili dezaketzen 300-400 pertsonak.

Gogoratzen du gai honen inguruan bere garaian berak egindako kontsultetan, sektoreko enpresa guztiek egoera horretan igogailu inklinatua ez jartzeko aholkatu zutela.

Yurramendi 8ko bizilagunekin izandako harremanen inguruan, ados dagoela Frutos andreak adierazitakoarekin, beraiek ere jarrera hori kritikatu zutela, eta gutxienez Gobernu Taldeak onartu zuela egindako akatsa, eta bere ustez geroztik jarrera aldaketa nabarmen bat egon dela.

Ziur dagoela, igogailu hau martxan jartzen denean, herritarrek eskertuko dutela, irisgarritasuna asko hobetuko baita. Kontuan hartu behar dela ere Urnieta bezalako herri batentzako horrelako igogailu bat jarri eta mantentzea oso garestia dela, baina hala ere, ezinbesteko zerbitzu bat dela nabarmentzen du.

Mikel Pagola alkateak hartzen du hitza lehenik Frutos andreak erantzuteko, aitortzen duela hasieran Yurramendi 8ko bizilagunekin komunikaziorik ez zela egon, baina egoera zuzentzen jakin izan dutela eta beraiek egindako proposamenak kontuan hartu direla. Horrelako azpiegitura bat jartzea proposatzen denean, normala dela batzuk onuradun eta beste batzuk kaltetuak izatea, baina bere ustez balantza batean jarrita onurak askoz gehiago izango direla kalteak baino, herriko irisgarritasunaren aldetik. Ahalik eta kalte gutxien jasateko bidean, bizilagunek egindako proposamenak jaso eta proiektuan txertatu direla gaineratzen du.

pero están convencidos de que las cosas se podían haber hecho bastante mejor.

Toma la palabra el concejal Mikel Izagirre del grupo municipal EH Bildu, para decir que en este punto hay cosas que nadie puede negar, ya que está claro que al modelo de ascensor que propone el Partido Socialista, tanto estéticamente como desde todos los aspectos, todos le darían el visto bueno, pero que cuando luego se ve el coste, eso es otra historia.

Los ascensores de este tipo que él ve, están en sitios donde se mueven miles de personas. Que se verá cuando pongan el de Donostia qué uso tiene, pero que la previsión es de que la utilicen 25.000 personas, y no las 300-400 que lo pueden usar en Urnieta.

Recuerda que sobre este tema, en las consultas realizadas por él en su momento, todas las empresas del sector aconsejaron no poner un ascensor inclinado en esa situación.

Sobre la relaciones con los vecinos de Yurramendi 8, está de acuerdo con lo expuesto por la sra. Frutos, que ellos también criticaron esa actitud, y que por lo menos el Grupo de Gobierno aceptó el fallo realizado, y que en su opinión, desde entonces ha habido un claro cambio de actitud.

Está seguro de que cuando este ascensor se ponga en marcha, la ciudadanía lo agradecerá, ya que la accesibilidad de mejorará mucho. Que también hay que tener en cuenta que para un pueblo como Urnieta poner y mantener un ascensor de este tipo es muy caro, pero aún así, subraya que es un servicio esencial.

Toma la palabra el alcalde Mikel Pagola para responder primero a la sra. Frutos, y reconoce que al principio no hubo comunicación con los vecinos de Yurramendi 8, pero que han sabido corregir la situación y que se han tenido en cuenta sus propuestas. Cuando se propone poner una infraestructura de este tipo, es normal que algunos sean beneficiados y otros afectados, pero en nuestra opinión, puestos en unas balanza, los beneficios han sido mucho mayores que los daños, en cuanto a accesibilidad. Para producir la menor afección posible, añade que se han recogido las propuestas de los vecinos y se han incluido en el proyecto.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

2015-2016ean egindako parte hartze prozesuaren inguruan Frutos andreak esandakoari buruz, Pagola jaunak adierazten du prozesu horretan herritarrek igogailu bat jartzea aukeratu zutela. Beraiek aukera hori aurrera eraman, eta igogailu mota aukeratzeko proposamen tekniko eta sektoreko enpresek egindako txostenetan oinarritu direla, ez zaiola iruditzen inoiz argudiatu dutenik igogailu bertikala herritarrek aukeratutakoa zela.

Berak uste duela argi geratu dela, eta herritarrek ulertu dutela Alderdi Sozialista ez dagoela igogailua jartzearen aurka, baizik eta ez daudela ados aukeratu den igogailu ereduarekin.

Bukatzeko adierazten du pausuak ematen ari direla proiektu hau aurrera ateratzeko eta urte bete inguruko epean espero dutela igogailua martxan egotea, batez ere herritarrek udal arduradunei hori eskatzen ari dietelako.

Udal zerbitzuek dituzten premiei eta obligazioei aurre egiteko, beharrezkoa da hainbat gastu egitea, ondoko proposamenean adierazten den moduan. Ekitaldi honetako aurrekontuaren exekuzioaren arabera, ordea, gastu partidetan ez dago nahiko krediturik aipatutako gastuei aurre egiteko. Beraz, premiazkoa da kredituak aldatzeko espedienteari hasiera ematea, proposamenean zehazten den kopuruan kredituak sortzeko edo, hala badagokio, gehitzeko, eta, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak, Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzkoak, 34. artikuluan jasotakoaren arabera.

Ikusirik kreditu aldaketaren espedientea, 07/2018 zenbakiarekin identifikatutako kreditu gehigarrien bitartez, Udal honetan indarrean dagoen aurrekontuari eragiten diona, 1.100.000 €takoa.

2018ko abuztuaren 28an bitarteko kontu-hartzailek igorritako txostenaren arabera, espediente hori aplikagarri zion araudiari doitzen zaiola, zehazki, abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluari eta hurrengoari, Gipuzkoako Lurralde Historikoko Tokiko Erakundearen aurrekontuari buruzkoa eta Urteko Aurrekontu Gauzapenaren Udal arauari.

En cuanto a lo dicho por la sra. Frutos sobre el proceso de participación llevado a cabo en 2015-2016, el señor Pagola ha dicho que en ese proceso la ciudadanía eligió poner un ascensor. Ellos han llevado a cabo esa elección, y para elegir el tipo de ascensor, se han basado en propuestas técnicas y en informes realizados por empresas del sector, y que no le parece que nunca hayan razonado que el ascensor vertical fuera elegido por la ciudadanía.

Que él opina que ha quedado claro, y que la ciudadanía ha entendido que el Partido Socialista no está en contra de la colocación del ascensor, sino que no están de acuerdo con el modelo de ascensor elegido.

Para finalizar, dice que se están dando pasos para sacar adelante este proyecto y que en el plazo aproximado de un año esperan que el ascensor esté en marcha, sobre todo porque la ciudadanía es eso lo que le exige a los responsables municipales.

Con objeto de atender las necesidades y obligaciones de los respectivos servicios municipales, se precisa la realización de los gastos relacionados en la propuesta que se adjunta. Sin embargo, a la vista de la ejecución del presupuesto de este ejercicio, se constata la insuficiencia del crédito necesario para hacer frente a dichos gastos. Por todo ello, procede iniciar expediente de modificación de créditos para crear, o en su caso incrementar, créditos en la cuantía especificada en dicha propuesta, al amparo de lo previsto en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales.

Visto el expediente de modificación de créditos, mediante créditos adicionales identificado con el nº 07/2018 que afecta al Presupuesto vigente de este Ayuntamiento por importe de 1.100.000 €.

Visto que según el informe emitido por la Interventora de fecha 28 de agosto de 2018 dicho expediente se ajusta a la normativa que le es aplicable, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 34 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa y la Norma Municipal de Ejecución Presupuestaria Anual.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Aipatutako legediaren arabera erabakia Udalbatzari dagokio.

Ikusita 2018ko irailaren 3an egindako Antolakuntza Batzorde Informatzailearen bileran emandako aldeko irizpena.

Alkateak gaia bozkatzea proposatu du, eta honako emaitza hau izan du:

Alde: 8

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 6.
URNIETAKO EH BILDU: 2.

Aurka: 2 (URNIETAKO UDAL TALDE SOZIALISTA).

Abstentzioak: 0.

Osoko Bilkurak, beharrezko legezko gehiengoarekin ondorengo

ERABAKITZEN DU

Lehenengoa: 07/2018 zenbakidun kreditu aldaketaren espedienteari hasiera ematea, kreditu gehigarrien modalitatean, 2018ari dagokion Udaleko Aurrekontuaren barruan.

GASTUAK/GASTOS

Partida	Azalpena	Kredituak		
		Egunoak	Aldaketak	Behin betikoak
1 0300.601.151.00.01 2018	IGOGAILUA	0,00	1.100.000,00	1.100.000,00
GUZTIRA		0.00	1.100.000,00	1.100.000,00

SARRERAK/INGRESOS

Partida	Azalpena	Zenbatekoa
2 0210.870.000.00.01 2017	DIRUZAINZTA GERAKINA / REMANENTE DE TESORERIA	1.100.000,00
FINANTZAKETA GUZTIRA		1.100.000,00

De conformidad con la citada normativa la adopción del acuerdo corresponde al Pleno.

Visto el dictamen favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 3 de septiembre de 2018.

El alcalde ha propuesto someter a votación el asunto, con el siguiente resultado:

A favor: 8.

URNIETAKO EUZKO ABERTZALEAK: 6.
URNIETAKO EH BILDU: 2.

En contra: 2. (GRUPO MUNICIPAL SOCIALISTA DEL AYUNTAMIENTO DE URNIETA).

Abstenciones: 0.

El Pleno, adopta con la mayoría legal requerida, el siguiente

ACUERDO:

Primero: Aprobar inicialmente el expediente de Modificación de Créditos Nº 07/2018, en la modalidad de créditos adicionales, dentro del Presupuesto del Ayuntamiento correspondiente a 2018.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Bigarrenkoa: 2003ko abenduaren 19ko Tokiko Erakundeen Aurrekontuari buruzko 21/2003 Foru Arauko 34. artikuluan xedatutako betez, jendaurrean jarriko da, honako arau hauek jarraituz:

Non dagoen: Kontu hartzailetza

Hori aztertzeko epea, eta hala badagokio, erreklamazioak aurkeztekoak: hamabost egun balioudun, iragarki hau Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean jarri eta hurrengo egun balioudunetik zenbatzen hasita.

Aurkezteko bulegoa: Udaletxeko Sarrera Erregistro Orokorrean BERTAN, 7:30etatik 14:30etara edo telematikoki www.urnieta.eus helbidean. Halaber, Herri-administrazioen administrazio-prozedura ekidearen 39/2015 Legearen 16.4 artikulua aipa tzen dituen lekuetan ere aurkez daitezke

Zein organoren aurrean egiten den erreklamazioa: Udaltzarrara.

Adierazitako informazio epea igarota erreklamaziorik edo ohartarazpenik aurkeztu ez balitz, behin betiko onartutzat emango da kreditu aldaketarako espedientea, erabaki berririk hartzeko beharrik gabe.

Hirugarrenkoa: Erabaki hau Kontu-hartzailetza sailera igortzea, dagozkion eraginetarako.

4.- Bake Epaile titular eta ordezkariaren hautapena.

AURREKARIAK

LEHENA. 2015eko maiatzan amaitu zen Bake Epaile karguen lau urteko izendapen epean: titularra, M^a Pilar Quevedo Garro eta ordezkaria, Joseba Andoni Arratibel Olaziregi.

BIGARRENA. 2018ko ekainaren 13ko Alkatezaren Probidentziaz espedienteari hasiera eman zitzaion Bake Epaile titular eta ordezkaria aukeratzeko, Urnietako udalerrian.

Segundo: En cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003 Presupuestaria de las Entidades Locales, de 19 de diciembre de 2003, se somete a información pública conforme a las siguientes reglas:

Lugar donde se encuentra: Intervención

Plazo para examinarlo y, en su caso, para presentar reclamaciones: quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el Boletín Oficial de Gipuzkoa.

Oficina de presentación: En el Registro General de Entrada del Ayuntamiento BERTAN, en horario de 7:30 a 14:30 o telemáticamente en www.urnieta.eus. Así mismo podrán presentarse en cualquiera de los lugares a los que se refiere el artículo 16.4 de la Ley 39/2015 de Procedimiento Administrativo Común de las Administraciones Públicas.

Órgano ante el que se reclama: Ayuntamiento Pleno.

Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado expediente de modificación de crédito, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Tercero: Trasladar este acuerdo al área de Intervención a los efectos oportunos.

4.- Selección de Juez de Paz titular y sustituto.

ANTECEDENTES DE HECHO

PRIMERO. En el mes de mayo de 2015 finalizó el período de nombramiento de cuatro años de los cargos de Juez de Paz, titular M^a Pilar Quevedo Garro y sustituto Joseba Andoni Arratibel Olaziregi.

SEGUNDO. Por Providencia de Alcaldía de 13 de junio de 2018 se dio inicio al expediente para la elección de los cargos de Juez de Paz, titular y sustituto, en el municipio de Urnietako.

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

HIRUGARRENA. 2018ko ekainaren 14an, Udal Idazkariak txostena egin zuen aplikagarri den legediari eta jarraitu beharreko prozedurari buruz.

LAUGARRENA. 2018ko ekainaren 27ko Alkatetzaren Dekretu bidez erabaki zen: (i) Urnieta bake epaile titular eta ordezkoren hautaketarako deialdi publikoa iragartzea, espedienteen barneratutako oinarriekin bat etorriz; eta (ii) Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratu dadin agintzea eta ediktu bidez udaleko iragarki taulan, Alderdiko lehen auzialdiko eta instrukzio epaitegian eta Bake epaitegian berean.

BOSGARRENA. 2018ko ekainaren 27an Donostiako Epaitegi dekanora eta Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera bidali zen Bake epaile titularra eta ordezkoa hautatzeko deialdia, Urnieta udalerrian. 2018ko uztailaren 9ko 131. zenbakidun Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean, Udaleko iragarki taulan eta Donostiako Epaitegi Dekanoan eta Bake epaitegian berean argitaratuta egonik, 2018ko uztailaren 10etik 2018eko abuztuaren 2ra arte.

SEIGARRENA. 2018ko uztailaren 29ko dataz amaitu zen eskabideak aurkezteko epea, eta epearen barruan aurkeztu ziren M^a Pilar Quevedo Garro, bake epaile titular izateko, 2018ko uztailaren 9an (2018-1859 zenbakidun erregistro zenbakia).

Eskabideak aurkezteko epeetik kanpo, 2018ko abuztuaren 27an aurkeztu zen (2018-2238 zenbakidun erregistro zenbakia) Manuel Longo Prieto, ordezkoko bake epaile kargurako.

Bi eskabidetan kargurako eskatzen diren baldintza guztiak betetzen direla adierazten da.

ZAZPIGARRENA. 2018ko abuztuaren 29an Udaleko Idazkariak txosten-proposamena egin du.

LEGEDI APLIKAGARRIA

Hau da legedi aplikagarria:

TERCERO. Con fecha 14 de junio de 2018 se emitió por el Secretario municipal informe sobre la legislación aplicable y el procedimiento a seguir.

CUARTO. Por Decreto de Alcaldía de 27 de junio de 2018 se acordó: (i) anunciar la convocatoria pública para el nombramiento/la elección del/de la Juez de Paz titular y sustituto de Urnieta, de acuerdo con las bases incorporadas en el expediente; y (ii) Ordenar su publicación en el Boletín Oficial de Gipuzkoa y mediante edictos en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en el Juzgado de Primera Instancia e Instrucción del Partido o Juzgado Decano y en el propio Juzgado de Paz.

QUINTO. Con fecha 27 de junio de 2018 se remitió al Juzgado Decano de Donostia y al Boletín Oficial de de Gipuzkoa, el anuncio de convocatoria para la elección de los cargos de Juez de Paz, titular y sustituto, en el Municipio de Urnieta. Siendo expuesto en el Boletín Oficial de Gipuzkoa nº 131 de fecha 9 de julio de 2018, en el tablón de anuncios del Ayuntamiento, en el Juzgado Decano de Donostia y en el propio Juzgado de Paz desde el 10 de julio de 2018 al 2 de agosto de 2018.

SEXTO. Con fecha 29 de julio de 2018 finalizó el plazo de presentación de solicitudes, presentándose dentro del plazo solicitud por M^a Pilar Quevedo Garro, para el cargo de juez de paz titular, con fecha 9 de julio de 2018 (nº 2018-1859 de registro de entrada).

Fuera del plazo de presentación de solicitudes, el 27 de agosto de 2018 (nº de registro de entrada 2018-2238) se presentó solicitud para el cargo de juez de paz sustituto por parte de Manuel Longo Prieto.

En ambas solicitudes se manifiesta reunir todos los requisitos exigidos para el cargo.

SEPTIMO. Con fecha 29 de agosto de 2018 se emite informe-propuesta por el Secretario Municipal.

LEGISLACIÓN APLICABLE

La legislación aplicable es la siguiente:

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

— Bake epaileen ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiaren 4. artikulutik 6.ra, 20., 21. eta 28. artikulua.

— Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 99. artikulutik 103.era eta 395. artikulua.

— Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 22.2.p), eta 22.4 artikulua.

— Martxoaren 22ko 3/2007 Lege Organikoa, Emakumeen eta Gizonezkoen berdintasun Eragingarrirakoa.

Ikusita 2018ko irailaren 3an egindako Antolakuntza Batzorde Informatzailearen bileran emandako aldeko irizpena.

Udalbatzak izatez eta eskubidez osatzen duten 13 zinegotzietatik, azaldu diren edo bertan dauden 10 zinegotzien aho bateko adostasunez honako hau

ERABAKITZEN DU

Lehena. María Pilar Quevedo Garro, NAN 34.086.981-S duena, Akan kaleko 9. zenbakiko 3. solairuko 4. atean (20130 Urnieta) helbideratua, Bake Epaille titular aukeratzea eta Manuel Longo Prieto, NAN 15.893.475-S duena, Pintore kaleko 5. zenbakian, 1. Solairuko A atean (20.130, Urnieta) helbideratua ordezkoko Bake Epaille aukeratzea.

Bigarrena. Erabaki honen berri Donostiako Epaille Dekanoari ematea, honek Gobernu Salara bideratuko duenari (Botere Judizialaren uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoaren 101.3 artikulua eta Bake Epaillearen ekainaren 7ko 3/1995 Arautegiaren 7. artikulua).

5.- Alkatearen funtzioen eskuordetza xedatzen duen 2018-562 ebazpenaren berri ematea.

Udalbatzarra alkatearen funtzioan eskuordetza xedatzen duen 2018-562 ebazpenaren berri emanda geratzen da.

— Los artículos 4 a 6, 20, 21 y artículo 28 del Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz.

— Los artículos 99 a 103 y artículo 395 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial.

— Los artículos 22.2 p) y 22.4 de la Ley 7/1985, de 2 de abril, Reguladora de las Bases del Régimen Local.

— La Ley Orgánica 3/2007, de 22 de marzo, para la Igualdad Efectiva de Mujeres y Hombres.

Visto el informe favorable emitido por la Comisión Informativa de Organización en sesión celebrada el 3 de septiembre de 2018.

El Pleno por unanimidad de los 10 concejales presentes o asistentes a la sesión, de los 13 que de hecho y derecho integran la Corporación, adopta el siguiente

ACUERDO:

Primero. Elegir a María Pilar Quevedo Garro con DNI nº 34.086.981-S, domiciliada en la calle Akan, nº 9, piso 3 puerta 4 (20.130, Urnieta), como Juez de Paz titular y a Manuel Longo Prieto, con DNI nº 15.893.475-S, domiciliado en la calle Pintore 5, 1º A (20.130, Urnieta), como Juez de Paz sustituto.

Segundo. Dar traslado del presente Acuerdo al Juez Decano de Donostia, que lo elevará a la Sala de Gobierno (artículo 101.3 de la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial y artículo 7 del Reglamento 3/1995, de 7 de junio, de los Jueces de Paz).

5.- Dación de cuenta del decreto 2018-562 de delegación de competencias del alcalde.

El Pleno de la Corporación queda enterado del decreto 2018-562 de delegación de competencias del alcalde.



Urnieta
udala

2018KO IRAILAREN 7KO EZ-OHIKO UDALBATZARRAREN AKTA ACTA DEL PLENO EXTRAORDINARIO DEL 7 DE SEPTIEMBRE DE 2018

Azkenik, eztabaidatzeko beste gairik ez dagoenez, alkateak amaitutzat eman du ez-ohiko osoko bilkura hau, goian adierazitako eguneko 13:55etan, eta nik, Urnieta idazkariak, hala egiaztatu dut, Alkatearen oniritziarekin.

Sin.: Mateo Habibi Astigarraga López
Idazkaria

Finalmente, no habiendo más asuntos que tratar, el alcalde da por finalizado el presente pleno extraordinario, siendo las 13:55 en la fecha indicada en el encabezamiento, se levanta la sesión, de la que yo, Secretario de Urnieta, certifico con la aprobación del Alcalde.

Sin.: Mikel Pagola Tolosa
Alkate-lehendakaria,